

American way of life



ARITZ GALARRAGA

Ze txapa Ameriketako Estatu Batuetako hauteskondeekin, bozketa, boto kontaketa, irabazle-galtzaileekin. Ze txapa oro har Ameriketako Estatu Batuekin. Ameriketako Estatu Batuak, izena idaztea bera nekagarria zait, Vanuatu, Seychelle, Madagaskar eder, arin eta jostarien aldean. Ez naute sekula bereziki erakarri. Ea, ez da Emeterio Arresek 1913an idatzi zuen hura –“Euskal Herriko baztar maitetik yankitar hoiien aldera / zorigaiztoan etorri nintzan ez dakit zer egitera”–; baina ez dut sekula partekatu nire adinkide askok harako erakutsi duten grina. Alegia, ez nukeela sekula eskatuko New Yorkeko liburutegi publikoan bekarik –eta ondorioz, *win-win*, ez zenukete jasan beharko handik bidalitako podcastik–. Egia esan, New Yorken baino lehenago pasako nuke astebete Le-xantzü-Zunharreko Juguberrian. Eta irrikaz itxaroten dut mundu mailako hegemonia txinoek noiz eskuratutako duten.

Aldiz, oso oroitzapen ona utzi zidan Bernardo Atxagaren *Nevadako egunak* liburuak, merezi baino apalago hartu zena. Idazleak eta bere familiak Renon 2007ko abuztutik 2008ko uztailean egindako egonaldia kronika, egunerokoaren apunte segida soil gisa hasten da –Lehen eguna eskolan, Renoko erdigunera oinez, Joan-etorria desertura–, baina laster barreiatuko da bestelako paisaia batzuetatik, paisaia askoz ere intimoagoetatik. Sekula ez du galtzen, ordea, Ameriketako Estatu Batuetako momentuko egoera soziopolitikoaren begien bistatik, dela hilketa baten ondorengo izu-egoera harrapatuz, dela alderdi politikoen baten hautagai-kanpaina jarraituz –tartean, Barack Obama: “Txanpon-makinen distretatik oso urruti zeuden kolore eta tonu haiek, eta estetika japoniar tradizionalaren arbera aukeratuak ziruditen, pop amerikarra ekidinez”–. Baina, ai, lagunok, hau literatura da. Eta nik, hedabideen etengabeko kalakaren aurrean, gero eta fede handiagoa diot literaturari. ●



ADUR

“AMERIKAKO ESTATU BATUEI HELDU ZAIE ORDUA ELKARTZEKO ETA ZAURIAK SENDATZEKO”

JOE BIDEN, AEB-ETAKO PRESIDENTE BERRIA

Alderdi Demokratikoko hautagaia izango da AEBetako 46. lehendakaria, beharrezkoa zuen 270 ordezkariaren kopurua eskuratuta. “Ohoratzen eta apalarazten nau jakiteak AEBetako jendeak niri eta Harris lehendakariorde hautatuari eman digutela konfiantza. Aurrekaririk gabeko oztopoei aurre eginez, inoiz baino iparramerikar gehiagok eman du botoa. Amerikako Estatu Batuak gara gu eta ez dago guk egin ezin dugun ezer, elkarrekin egiten badugu”. Trumpek ohartarazi du ez duela emaitza onartzen eta auzitara joko duela. **2020/11/07**

